

GIZARTEA ▶

Oiangu Bizirik plataforma sinadurak biltzen hasi da

Gaur onetsiko du Udaltzako Oianguko proiektuaren aurrekordia plenoan



Larunbatean eta igandean jarri zuten plazan sinatzeko mahaia Oiangu Bizirik taldekoek. MAIDER DEL OLMO

MAIDER DEL OLMO

Oiangu Bizirik plataformak sinadura bilketa egin du asteburuan. Larunbatean eta igandean jarri zuten mahaia herriko plazan. Atzo, berriz, Alejandra Iturrioz alkatearekin bildu zi-

ren. Eta plataformako kideek bilera egin zuten iluntzean. Gaur jakinaraziko dute sinadura bilketa nola doan.

Plataformak Oianguko parkearen «izaera publikoa eta naturala» aldarrikatzen du. Parkearentzat Udalak ontzat eman

nahi duen egitasmoa haren izaera publiko eta naturalaren aurkakoa dela uste du plataformak. Horregatik, egitasmoa bertan behera uztea eskatu dute: «Jabetzen gara utzikeriak parkea behar bezala zaintzea eta disfrutatzea galarazi duela.

Horregatik eskatzen dugu guztion artean aztertzea eta bestelako egitasmo bat aurrera eramatea, parkea babesteko duena, ingurumen heziketa emango duena eta ordiziar eta bisitari guztioi libreki disfrutatzeke aukera emango diguna. Herritarren eskubidea da, gainera, egitasmo horien inguruan informazioa jasotzea, parte hartzeko bideak izatea eta kontsultatuak izatea».

Plenora joateko deia

Bestalde, gaur, arratsaldeko 19:00etatik aurrera Osoko Bilkura egingo da udaletxean. Han onetsiko dute Oianguko egitasmoaren aurreproiektua. Oiangu Bizirik plataformak dei egin die herritarrei gaur plenora joateko.

Plataformak gehitu duenez, «ez dugu helburu politiko alderdikoirik, eta ez dugu inolako erakunde edota enpresaren aurkako asmorik ere». Oiangu parke publikoa izateak ezinbestean eskatzen du, euren ustez, «modu librean disfrutatua ahal izateko doakoa izatea, he-sirik gabeta, guztiona eta guztiontzat; ez negozio itxia, elitista eta pribatua».

FUTBOLA ▶

Ordiziak 2 eta 0 irabazi dio Anaitasunari

Ordiziako taldeak 2 eta 0 Oko emaitzarekin garaitu zuen herenegun Anaitasuna. Ordiziarrek partida hasi eta berehala jarri ziren aurretik. Areatioak ez zuen gol arrisku nabarmenik eragin partida osoan. Ordiziako taldearen lehenengo gola Irastorzak sartu zuen (10. minutuan) eta Gorkak, berriz, bigarrena.

ANTZERKIA ▶

Ausartak taldea gaur Jubilatuenan

Ordiziako Ausartak jubilatuen antzerki taldeak *Los milagros del jornal* lana eskainiko du, gaur, jubilatuen egoitzan. Emanaldia 18:00etan hasiko da.

LEHIAKETA ▶

Ordiziaren 750. urteurreneko logo lehiaketa

Logotipo lehiaketa antolatuta du Udalak Ordiziaren 750. urteurrenaren harira. Lanak aurkezteko epea apirilaren 8an amaitzen da, eta udal-txan aurkezte behar dira. Logoan hitz hauek azaldu behar dira: ORDIZIA 750.



Beti Argi musika bandaren kontzertua

KULTURA ▶ San Jose eguneko kontzertu berezia eskaini zuen, herenegun, Beti Argi musika bandak herriko plazan. Kutsu bereziko emanaldia izan zen, opakizun girokoa, aurten taldeak 25 urte betetzen baititu. Igandekoa,

gainera, aurten herrian ematen duten lehenengo kontzertua izan zen; jende ugari bildu zen emanaldira. Beti Argi bandakoek jakinarazi dutenez ekitaldi ugari izango dira herrian 25. urteurrena ospatzeko. MAIDER DEL OLMO

ERRUGBIA ▶

Aymak lider bukatu du, Usap-ekin galdu arren

Tentsio handiko partidaren 37 eta 14 galdu zuten herenegun ordiziarrek Bartzelonan

M. DEL OLMO

Ayma Ordiziak galdu egin zuen igandean Usap Barcelonaren aurka Katalunian jokatutako partidaren. Azken emaitza 37 eta 14 izan zen.

Axio Araña entrenatzaileak azaldu duenez tentsio handiko norgehiagoka izan zen. Usap Barcelonako jokalariek gogo handia jarri zuten jokan, eta indar handiz atera ziren zelaira. Arañaren hitzetan, ordea, partida ez zen erabat garbi joan: «Tentsio handia egon zen, eta gure jokalariek

moztu egin ziren euren jokoa», azaldu du.

Galduta ere lehenengo postuan bukatu du Liga Ayma Ordiziak. Herenegungo partidak, neurri batean, «hankak lurreran jartzeko» balio izan diela ere esan du entrenatzaileak: «Hotzean pentsatuta, gainera, orain pozik ere banago. Partida horretan baja batzuk ere bagenituen, eta hori ere kontuan hartzekoa da», nabarmendu du. Aurrera begira ilusioz dago taldea; mai-laz igotzea da euren helburua orain.